

Klementa Arregi Lamariano

*Bergara,
Gipuzkoa
(1924-2007)*

Aurkibidea

Biografia



1924an Goi-auzoko Idurio baserrian jaioa, ezkondu ondoren Ubera auzoko Artiz baserrira joan zen bizi izatera. Bergarako euskara jasotzeko bere seme Juan Martin Elexpuruk egindako ikerketa lanean laguntzaile garrantzitsua izan zen.

Zintak

BER-018

- **Proiektua:** Bergara aldeko hiztegia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elxpuru, Juan Martin
- **Data:** 1988-03-06
- **Iraupena:** 48 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Emalea:** Elxpuru, Juan Martin

BER-019

- **Proiektua:** Bergara aldeko hiztegia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elxpuru, Juan Martin
- **Data:** 1993-12-01
- **Iraupena:** 53 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Emalea:** Elxpuru, Juan Martin

BER-020

- **Proiektua:** Bergara aldeko hiztegia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elxpuru, Juan Martin
- **Data:** 1993-12-13
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Elxpuru, Juan Martin

BER-021

- **Proiektua:** Bergara aldeko hiztegia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elxpuru, Juan Martin
- **Data:** 1994-01-04
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Elxpuru, Juan Martin

BER-022

- **Proiektua:** Bergara aldeko hiztegia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elxpuru, Juan Martin
- **Data:** 1994-01-04
- **Iraupena:** 54 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Elxpuru, Juan Martin

BER-023

- **Proiektua:** Bergara aldeko hiztegia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elxpuru, Juan Martin
- **Data:** 1994-01-12
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Elxpuru, Juan Martin

BER-024

- **Proiektua:** Bergara aldeko hiztegia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Data:** 1994-01-19
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Elexpuru, Juan Martin

BER-025

- **Proiektua:** Bergara aldeko hiztegia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Data:** 1994-02-02
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Elexpuru, Juan Martin

BER-026

- **Proiektua:** Bergara aldeko hiztegia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Data:** 1994-02-11
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Elexpuru, Juan Martin

BER-027

- **Proiektua:** Bergara aldeko hiztegia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Data:** 1994-02-25
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Elexpuru, Juan Martin

BER-028

- **Proiektua:** Bergara aldeko hiztegia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Data:** 1994-02-23
- **Iraupena:** 32 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Elexpuru, Juan Martin

BER-029

- **Proiektua:** Bergara aldeko hiztegia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Data:** 1994-03-02
- **Iraupena:** 51 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Elexpuru, Juan Martin

BER-030

- **Proiektua:** Bergara aldeko hiztegia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

- **Data:** 1994-03-09
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Elexpuru, Juan Martin

BER-031

- **Proiektua:** Bergara aldeko hiztegia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Data:** 1994-03-14
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Elexpuru, Juan Martin

BER-032

- **Proiektua:** Bergara aldeko hiztegia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Data:** 1999-04-22
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Gariaren inguruko lexiko eta lanak

- **Erref:** BER-019/002
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:01:57. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Gariaren inguruko lexiko eta lanak: galtzua, galburua, galondoa (garia egondako soroari esaten zitzaion).

2. Gariaren inguruko lexiko eta lanak

- **Erref:** BER-019/004
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:04:39. **Bukatu:** 00:07:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gariaren inguruko lexiko eta lanak. Galafaria (bakailaoa eta intxaur-saltsa), garia erein ostean egiten zen afariari esaten zitzaion. Kontsezio inguruan izaten zen. Gariak izaten zituen lan desberdinak: goldatu, erein...

3. Baserri jabeen eta erreteroen arteko harremana

- **Erref:** BER-019/006
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:07:46. **Bukatu:** 00:09:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

<p>Gabonsaria. Antzina baserrietan erreteroa izaten zirenean, Gabonetan nagusiak bakailoa ematen zien neskameei... "Bandixua". Gariz betetako kutxak.</p>

4. Abereen gantzak

- **Erref:** BER-019/007
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:09:06. **Bukatu:** 00:11:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Gantza: oilo, ahate eta horrelakoen olio (horia izaten da); txerriaren koipea (txerriaren baresarea, koipetsua izaten da). Mintza. Esaerak.

5. Artoarekin zerikusia duten zenbait berba

- **Erref:** BER-019/009
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:12:33. **Bukatu:** 00:13:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Lexikoaren inguruko galderak. Artoa urkuldu edo irakorri, babak aletu....</p>

6. Pazkoa-opila

- **Erref:** BER-019/012
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:15:53. **Bukatu:** 00:18:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Martopilak. Pazkoa-opila. Ama-bitxiak umeari oparitzen zion opila. Hiru puntaduna izaten zen eta bakoitzean arrautza bat izaten zuen. Olata ere esaten zitzaion. Elizara eramaten zen. Ogiak buru gainean zituztela joaten ziren hileta-elizkizunetara.

7. Izotz-kandelak

- **Erref:** BER-019/014
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:19:09. **Bukatu:** 00:19:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Izotz-kandelak; izotz-garrangak.

8. Gaztainerre

- **Erref:** BER-019/019
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:25:51. **Bukatu:** 00:27:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

<p>Gaztainerre. Domu Santu eta Arimen Egunean. Osintxu eta Eibarren beste egun batean ospatzen da (bigarren astelehenean). Horrelako egunetan zer jaten zuten (porru patatak...)</p>

9. Gabonetan, errondak egiten ziren baserrietan

- **Erref:** BER-019/030
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:50:50. **Bukatu:** 00:52:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gabonetan, errondak egiten ziren; lagun talde bat etxe batean elkartu. Boluetan egiten zenean ere "errondia" egiten zen.

10. Zeintzuk bizi ziren baserrian gerra denboran

- **Erref:** BER-032/001
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denboran, etxean zenbat bizi ziren. Beste senide batzuk ere etorri zitzaizkien etxera, euren etxeetatik atera zituztelako.

Transkripzioa

- Zeintzuk bizi ziñaten sasoi hartan Idurixon?
- Lau aizta eta bi anai aitta-amekin bizi giñan.
- Eta gero kanpotik etorri zan jentia be bai, ezta?
- Bueno, gerratian ba etorri zien Erguizarkuak (Egurbidezar, Ubera). Etara zittuen etxetik, eta ganauekin eta hemezertzi eguneko ume batekin etara zittuen etxetik, eta Udaixako Maritxu, neska bat be han zeuan, lehengusiñia zan, eta Udaixa erre ein zebe, eta Erguizarren zeuan, eta haura be harekin etorri zan. Eta gero Amatiñoko tia be etorri zan bost umekin, ia azken aldera haura, etxian kaiñonazua sartu zotsen eta, billurtu eta gurera etorri zien bost umekin tia, amandrian, amandria difuntian aitzia zan, eta gurian egon zien.

11. Lehenengo tiro-hotsak Deskargan; Nazionalak Bergaran; iheslariak

- **Erref:** BER-032/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:01:30. **Bukatu:** 00:03:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra zibileko bizipenak: lehenengo tiro-hotsak Deskargan; Nazionalak Bergaran; iheslariak.

Transkripzioa

- Eta gero?
- Gero soldauak.
- Soldauena gero zertuko dogu, soldauak etorri zienian frentetik eta. Baiña aurretik lelengo aldiz soldauak etxe inguan noiz ikusi ziñuzten?
- Lelengo Deskargan tiruak entzun giñuzen eguna zapatua zan. Zapatua? Domekia. Zapatuan kalera (?) joan nintzan eta orduan sakristixara joaten giñan konfesatzera, eta hara etorri zien gurasuak aurrera juateko igesi, bazetozela nazionalak eta. Hurrengo egunian Deskargako tiruak entzuten zien, pakun!, pakun! Tiruak. Gero gu martitzenera arte kalera bajau be ez eta ezebe ez giñan eiñ, billurra eta, kalian hasi zien teillatutan-eta, balkoittan-eta izara zurixak etaratzen eta holakuak eitten, eta sartu zien ia nazionalok. Jente guztiak ihes ein zeban, guretik gora Elgeta aldera makiña bat jente joan zan.
- Karreteratik, kamiñotik baiño gehixago?
- Ba ezta kett, orduan oiñez jente asko ibiltzen zan eta igual mendittik gehixao joango zan. Askok joan zan behintzet guretik gora, sasoko jentia behintzet asko.
- Oiñez. Eta astuekin eta?
- Ez. Oiñezko jentia. Oiñezko jentia.

- Eta zer eruatzen zebezen aldian?
- Ahal zebezen erropia eruangor zebezen, baiña gauza haundirik ezin eruan.

12. Lehenengo gerra-istiluak Bergaran

- **Erref:** BER-032/003
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:04:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Nazionalak sartu zireneko kontuak. Lehenengo istiluak Bergaran.

Transkripzioa

- Eta ia sartu zientian nazionalok?
- Lelengo bi egunian geldi egon zittuan Bergan. Eta hirugarren egunian hasi zient mobitzen, eta lelengo enfretamentua Txarako zelaixan, hor goiko gaiñeko zelaixan, han Arrikotxo onduan, kolumna elektrikua dauan onduan, han zulo bat eindda gorrixak lau-bosten bat lagun, asko ez zient izengo baiña. Askatzutik gora ixo zeban konpañiak eta han estata batetik Kiruta onduan, Amilletxebarriko zelaixan onduan ba hasi zittuan tiroka, eta han zerian, goiko zelaixan zerenok be bai. Tiraka alkarri. Eta, nik ez neban ikusi, baiña anai difuntuak esaten zeban, bandera txiki batekin, han Lapatzako... Urkizuritta-edo esaten jakon, eta herrixan piñuixan azpittik, atzekaldetik bat joan jakuen eta bonba de manua bota tiroka ziharduenoi, eta bi edo hiru hil ei zittuen. Eta gero Asentziaraiño-edo segidu juen, baiña han geratu zittuan; gero ia zazpi hillabetian handik aurrera ez zittuan joan.

13. Lehenengo eraso serioa; piperrak harrapatzen soldaduak

- **Erref:** BER-032/004
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:04:54. **Bukatu:** 00:06:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Lehenengo eraso serioa; piperrak harrapatzen soldaduak.

Transkripzioa

- Eta lehenengo atake serixuak?
- Errosaixoko Domeka egunian izen zuan atakerik gogorrena; hilddako mordua-ta. Amatrailladorekin-eta, trintxerekin-eta jarri zittuan harek, eta orduan ez jauan ixotzeik jente asko joan arren.
- Eta zuen etxe ingurutik pasua zela akordatzen jatzu?
- Ba kolumnia edo, kolumnia pasau zala esaten zebezen, ez dakit lau konpaiña-edo zenbat izengo zient. Pasau ta pasau ta pasau jentia, akordatzen naiz ni.
- Danak oiñezkuak?
- Oiñezkuak eta kabaillo edo mulo banakan batzuk be eruangor zittuen, ez

dakit, ez naiz ondo akordatzeko, baiña oiñezko asko behintzet bai. Eta gure soro bixen erdittik pasatzen da bidia, eta han bide baztarrian geunkan piparrak, edarrak zeren, eta landarak etara ta eruaten hasi ziren. Eta anai difuntuak: bueno, piparrak hartzeko nahi bazeben, baiña landarak lagatzeko-edo esan zotsen, eta : "Tú también serás rojo, te daremos un tiro!" esan zotsen, eta trote barrura.

- Eta gero hola jatekua eskatzera-edo soldaduak, gora eta behera zebitzen lehenengo egunetan?

- Ez. Jatekoik ez zezen eskatzen, goseik ez zebillen soldauak orduan. Ez dot uste. Bai, gero hamen frentian erdixan geratu ziren etxetatik-eta, konejuak-eta, oilluak-eta horrek harrapau zittuen. Baiña guri ba ez zoskun hola lapurreta haundirik ein.

14. Uberako baserri batekoak etxean hartu; etorrera errukarria

- **Erref:** BER-032/005
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:06:56. **Bukatu:** 00:08:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Uberako baserri batekoak etxean hartu zituzten gerra denboran. Horren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Frentian erdikuak esan duzu Erguizarko zera ta...

- Bai, bai. Artiz berau be bai erdixan...

- Ez, baiña zuenian hartuta etxian?

- Bai. Erguizarkuak etorri zittuan; Partaittira jaso jittuen lelengo, eta ba handik norabait joan bihar, eta ganauak be bazeuzken, eta gabian ekarri zittuen egundoko eurixekin. Ekarri jittuen, eta klaro, irixak lotu eta ahal zittuenak burdixan hartu eta txalok-eta umioi-ta lepuan hartuta, busti-busti eindda uste dot aillegau ziela zerera, errukarri, Partaittira. Eta gero Altzarrikan tiuak jeuzken, eta harek etorri zittuan gurera aber hartuko giñuzen eta, ba halaxe hartu giñuzen.

- Eta danera zenbat ziñaten etxian?

- Bueno ba: anaiok eruan zittuen soldau, eta aitzok geratu giñan, lau aizta. Amatiñon egon zuan Bittori. Amatiñon ume txiki mordua, eta umezaiñ Bittori eruan juen. Eta Maria; egunero esniekin joaten zuan haura kalera. Eta neu eta Juli difuntia.

15. Bandera zuriak leihoetan nazionalak sar zitezen

- **Erref:** BER-032/006
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:08:20. **Bukatu:** 00:09:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Bandera zuriak jartzen zituzten leihoetan, nazionalak sar zitezen. Euren etxean behatokia jarri zuten etxe ostean. Idiek kablea apurtu zutenekoa.

Transkripzioa

- Hemen banderak-eta ipini zittuela esan dozu. Zela zan hori?
- Ba honek sartu bihar zebeñian, klaro, jentia alde zeñan Bergatik, baiña ez zien sartzen artian, eta jentia izara zuria etara jittuan balkoittara-ta, teillatura-ta.
- Eta noiz agertu zien zuenera soldauak bizitzera?
- Ba Zurrari kaiñoia ipiñi zittuenian, guri obseñatorixua ipiñi zeñen, han etxostian eta Kalbarixoko tontorrian [...] Pago bat zeñan erdixan huekua zeukana, eta hari zulu a in eta han tripodia edo katalejuak ipiñi eta handik Intxorta aldia-eta ikusten juen, eta gure etxostetik Agarreñoiko aldera jeuken zera, "la casa de muchas ventanas" Agarreñoikua zuan, eta itxuria han mobimentu haundia ikusten zuan milizianuak-edo zerak-eta. Eta obseñatorixua ipiñi zeñenian etorri zittuan gurera alferiza-eta, kabo-eta; lau-bosten bat edo.
- Altuena zer zan, alferiza?
- Alferiza. Gero etotzen zuan kapitana be. Kapitana jeñan Usastin, itxuria, eta etorri zuan baten baiño gehixaotan, andriakin be bai. Andriakin hura Usastin zeñala esaten juen.
- Eta beste soldauak be espeñalistak izango zien?
- Bai, komunikaziñotako zera. Behin, zera, kabla botata jeñan Zurratik Idurixora, eta apurtu zotsenian han ibili zittuan banderolekin seiña eitten. Eta hasarre gabian. Zeiñek apurtu zotsen, sospetxosua danak zittuan euskeraz eitten zeñenak, eta gure aitta-zanak ez jakixan erderaz, eta Amatiñoko tiak be ez. Eta sutonduan euskeraz harek eta: "Estos vascos que ni ellos se entienden, hablen en cristiano!" esan, eta ixilik; eta hiru egunian ixilik egon zittuan sutonduan, alkarri seiña eiñaz.

16. "Artillería de Montaña"ko soldaduak etxean

- **Erref:** BER-032/007
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:09:58. **Bukatu:** 00:13:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

"Artillería de Montaña"ko soldaduak etxean. Euskaldunen eta erdaldunen arteko ezinikusiak.

Transkripzioa

- Eta zela akordatzen jatzu horrek hiru egunok?
- Hiru egunok? Ba, zera, azkenengo kontraatakia emun zeñenian; bai, bai, azkenengo egunetan. Zeretik intentau zeñen, Asentziotik, baiña ezin izan juen eta, klaro, orduan, gau haretan behintzet, hainbeste bonbardeo-ta hainbeste zer a in zeñen, baiña ezin, eta gero ostetik sartu zittuan.
- Eta zer soldautsu zeren? Batzun batzuk euskaldunak zirela-edo?
- Ez, ez, ez. Beste zer bat jeñan, "Artilleria de Montaña", Txikasoko

txabolian onduan han jauzken lau kaiñoi "Artillería de Montañakuak", harek etortzen zittuan gurera lo eittera; harek egon zittuan denpora askuan, harek bestiak baiño denpora gehixauan, ze harek lehenao etorri zittuan Txikasora kaiñoiekin. Euri asko eitten zeban urte haretan, eta etortzen zittuan gurian sapaixan lo eittera, esnia eratera eta sapaixan lo eittera.

- Zenbat?

- Bueno! Hemezazpi-hemezortzi ta, eta gehixao-ta etorrittako egunak be bai.

- Sapaixan egitten zebe lo?

- Bai. Sapaixan eitten zebe lo.

- Naparrak zien batzun batzuk?

- Bai, Leizakuak eta, Hernanikua eta Atxabaletakua be bai. Eta euskaldunak be bastante; eta kastillanuk be banakia etortzen zan, baiña gurian zela gure aitta-zanak euskeraz eitten zeban, ba euskaldunokin eukitzen zittuan konbersaziñuak-eta, ño! Hasarretu eitten zittuan kastillanuok. Akordatzen nok baten, hola pasillo bat jeuan gure zerian sukaldian ate parian ba, zaltaira arte, askaurria edo zera, pasillo bat. Jaiki ta han pasiatzen; atetik begiratu eta: "Ya se ha cocido la leche?"

- Hori zein zan, alfereza?

- Ez, ez, ez. Hori zuan "Artillería de Montañakua", apartekua.

- Zer zan, kapitanen bat?

- Ez, ez. Rasua. Eta napar batek: "Ez dek ikusten pertza?". Galdaria egosten zerian, gelatzian txintxilizka, eta "Ez dek ikusten pertza?", eta lehen baiño hasarriao; gehixao ez zittuan etorri be ein gurera, Amatiñora joaten zittuan erdaldunok.

17. Logroñoako alferez ipurterrea

- **Erref:** BER-032/008
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:13:36. **Bukatu:** 00:15:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Inguruetan ibili zirenen artean, ipurterreena Logroñoako alfereza izan omen zen. Haren inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Eta zein zan ezpain errebittauena?

- Hori alfereza, alfereza, Logroñokua zuan. Eta Amatiñoko tiak, hori esan zebanian, "Estos vascos que ni ellos se entienden", neri hola ekulonduakin jo ta: "Kuriosua don ba beroi errebittautako ezpanokin".

- Hori alferezak esan zeban?

- Alferezak, bai, alfereza zuan, Logroñoko txiki bat.

- "Artillería de Montañakua"?

- Ez, harek esan juan "ya se ha cocido la leche". Baiña bistan jaukan, eta bestiak esan jotsan: "Ez dek ikusten hor pertza?".

- A, hori zan beste bat.

- Bai.

- Eta lo nun eitten zebe alferezak eta?

- Kuartuan ipiñi bihar izan gontsan ohia. Bai. Nik ez jakixat zela arreglatzen giñan.

- Eta zeuek nun eitten ziñuen lo?

- Ba, beste bi kuarto be bajezia eta, bi ero hiru, eta zelabaitt arreglatzen giñuztan.
- Koltxoia lurrera botata-edo?
- Ba ahal zan moduan.

18. Umeen jolas arriskutsuak

- **Erref:** BER-032/009
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:16:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

12-13 urte zituen gerra denboran. Sarritan arrisku handiak pasatzen zituzten.

Transkripzioa

- Zuek zer jolas egitten ziñuen? Artian gaztiak izango ziñaten.
- Bai, hamabi-hamahiru urte. Bueno ba, jaixan-eta alkarrekin zertzen giñan, juntatzen giñan auzoko gaztiok. Sarritan gurera be etortzen zien. Eta behin akordatzen naiz, alemanak etorri zittuan Bergara, eta frentia ikusten etziñ lurrian-eta, katalejuekin han Intxortxua-ero esaten jakon lekuan, eta gu gazte-kuadrilliak arrautza-lokak billau giñuzen han apixa bat, eta mutiko batzuk plisti-plasta! erak zeren inguruan-eta, eta klaro, arrautza-lokiak tiro haundixa etaratzen jok; jaiki eta atzera begiratu be egin barik aintxintxiketan ekin zotsen eta. Gero akordau zien umiak giñana baiña...

19. Atake egunetako hildakoak

- **Erref:** BER-032/010
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:16:06. **Bukatu:** 00:16:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Frontera bisitara etorritako jendea. Atake egunetako hildakoak.

Transkripzioa

- Bisittara frontera etorritako jenteik, nobixak-edo, amak-edo?
- Bai. Gu kalera ez giñustan asko joaten.
- Hori kalia izango zan, gora ez zebe igoko.
- Bai. Akordatzen naiz behin trenian etorritako emakume enbarazada bat-eta, zela nobixuan billa-ta, holako kontuak.
- Eta atakiak egon zientan, hildakuak eta heriduak?
- Anguzar aldetik-edo bajau zittuen, guretik ez zittuen bajau.
- Hor Aldai aldetik edo?
- Bai. Ixo bai, baiña bajau ez. Ez naiz akordatzen.

20. Fronte batetik bestera pasatutakoen istorioak

- **Erref:** BER-032/011
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:16:52. **Bukatu:** 00:19:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Fronte batetik bestera pasatutakoen istorioak.</p>

Transkripzioa

- Gora pasautako historixaik? Edo goikuak behera, edo gabaz?
- Bai. Hondartzan kriauegondako Elgetako Urbedeinkatuko, Urbedeinkatu basarrixa zuan, Paulo-edo Hondartzan kriauegon zuan, eta Madrilgo frentetik Elgeta hartuta zeualakuan etorri zuan. Eta Hondartzan jente asko jeuan orduan be, eta sapaixan lo eitteko-edo zertu juen, eta gabaz pasau ein zuan.
- Ez zekixen berak?
- Bai, hona etorri zanian enterau zuan Elgeta hartzeke zeuana, baiña Hondartzara joan zuan eta gabaz pasau ein zuan.
- Bera zer zeuan, gorritan ala?
- Ez, nazionaletan; soldau tokau zuan, itxuria, gerria hasi zanian-eta. Madrilgo frentian ba Elgeta eta danak hartuta zerelakuan. Hondartzan lo eitteko geratu eta gabian pasau ein zuan; baiña gero nazionalak hartu eta afusilau ein zebela esaten juen.
- A bai?
- Bai. Gurian be egon zittuan "Artillería de Montaña" bi mutill, bata Getxokua eta bestia Mungiakua, bixkaitarrak, gogo galantakin Bixkaira joateko. Eta egun baten harrapau ein zittuela pasatzen hasitta-edo, esaten juen. Baiña ez juen ezen zerik izen.
- Gogo galantakin. Zuek igarri eitten zontsen?
- Honbree!
- Esan be bai?
- Bai. Esan be... Erdi esan bai behintzet. Klaro, Burgosen-edo soldau tokau zittuan eta gero hementxe egon bihar zazpi hillabetian-eta. Luze.
- Eta gaiñera beste ideia batekuak izango zien seguramente.
- Baitta.
- Eta laguntasunik eskatu pasatzeko, edo bidiak erakusteko?
- Ez, geuri ez naiz akordatzen. Holakuak be izengo zian, baiña ez.
- Esan dozu harrapau ein ete zittuen pasau nahixan?
- Bai. Intentau zebela behin eta gaixki urten zotsela esaten zeben.

21. Baserritarrak behartuta soldaduak laguntzera

- **Erref:** BER-032/012
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:19:20. **Bukatu:** 00:20:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gauezko patruilak. Baserritarrak behartuta soldaduak laguntzera.

Transkripzioa

- Eta gabazko patrullak-eta? Aittajaunari entzunda daukat.
- Bai. Amatiñon jeuan "Fortaleza Volante" eta esaten zotsen holako kapitan..., Sarjento Baldú zan hemengo terroria, hemengo inguruetako oilluok eta konejuok harrapatzen jittuan baiña. Eta gabian Narbaiz-boluan, gure aitta-zana be Narbaiz-boluan jeuan, eta Aixkarko Manuel be bai, eta gabian joan eta hartu erekin eta frentia ikustera; osea, Agarregoiko ondoraiño aillegau ei zittuan. Amatrailladoria erei eruan eraiñ, je, je, je, eta hartu aurrian eta haraiñotxe. Eta han, itxuria, milizianuok potiak-eta behera botata eukitzen ei jittuen, eta zaratak etaratzen hasi zienian, buelta. Eta gure aitta-zana akordau zanian datozela, teillatura, Narbaiz-boluan teillatura ixo ei juan eta salbau ei zuan.

22. Artizera milizianoak etxeko nagusiaren bila

- **Erref:** BER-032/013
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:20:44. **Bukatu:** 00:23:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Behin milizianoak etorri zitzaizkien etxera aitaren bila, dirua "estampilatzen" zuela eta.

Transkripzioa

- Hemen bertako (Artizko) historixak be kontatzen zittuen. Milizianuak etorri billa eta atzeko zeretik ihes eiñ...
- Bai. Miliziano kuadrilla bat etorri eta gertatzeko. Zera, dirua estampilau ein bihar izeten zan orduan, nazionalen aldian zertzia nahi bazan, dirua estampilau. Eta hortan izen ei zan gure aitta Bergan. Eta jenerua be ba Bergatik ekarri bihar-eta. Eta etorri ei zien ezta kitt dozena bat, ero hemezortzi ero. Eta gertatzeko. A, dirua, estampilautako dirua aber nun daben. Eta erakutsi ei zotsen, baiña zati bat baldo bittartera bota ei juan zerian, ataixan. Eta gertatzeko. Eta halaxe gertatzera juan zanian ba amakin soldauok sukaldian, eta goittik behera bajau zanian, hor eskillara barrenian bentania bajean gurian, eta amai esan ei zotsan: "Nik ihes ein bihot". "Baiña zer, gero gu zela geratzen ga ba?". "Ba ni eruaten banabe, ez nazu gehixao ikusiko" "Ba joan zaitte orduan!". Eta salto ein bentanatik eta ezkutau ei zuan zerian, eta soldauak etxoin eta etxoin. "Nun da ba haura?, nun da ba haura?" Eta akordau zienerako ia joanda. Eta gero ba soldauak be joan ein bihar. Baiña...
- Orduan eruan zebe Tio Manuel?
- Bai, bai. Tio Manuel Orduantxe eruan juen, bai. Eta Arantzetan, Arantzetan. Eta deklaraziñuak hartzen, eta anaiak nun dien, eta ordurako anaiak behera pasauta.

23. Idurio baserriko afariak

- **Erref:** BER-032/014
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:23:04. **Bukatu:** 00:24:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Idurio baserriko afariak; soldaduekin batera jaten zuten. Alferezaren inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Idurixoko afari-denporak eta zela akordatzen ditzuzu? Zela eitten ziñuen, soldauak eta zuek danak batera han?
- Nik ez jakixat. Soldau hori, alferrez hori behintzet, beti piparrak, riojanua zuan, betik piparra eta arrautzia gustatzen jakuan. Mariak, akordatzen nok, hola krak!, eta esku batekin apurtzen jittuan arrautzak, eta, jesus!, zela apurtu leikien hola arrautzia!
- Eta zer zan, jenixo txarrekua?
- Azken aldera bai behintzet, azken aldera ia zertuta jeuan, pipartuta jeuan zihero.
- Hainbeste pipar janda. Ezpanak zer zeuzkan?
- Ezpan haundixak, holaxe, moruen antzera jeukan.

24. Errefuxiatuak Enseñanzako eskolan

- **Erref:** BER-032/015
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:24:02. **Bukatu:** 00:25:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Milizianoen eta karlisten instrukzioak gerra aurretik. Errefuxiatuak Enseñanzako eskolan.

Transkripzioa

- Bestela akordatzeko za pasautako istoriaik? Soldauak artian, soldauak eta basarritarrak, soldauak eta neskek...
- Bueno ba. Gerria urten zebanien akordatzeko nok ni zera, boluntarixuak izango zittuan, instruziñuak ikesten Idurixoko aldian, "Un, dos, tres, cuatro! Cuerpo a tierra!", holaxe, illaria jarri lurrian etzindda-ta. Instruziñuak ikesten, akordatzeko nok.
- Milizianuak?
- Bai. Eta refugiauak Bergara etorri zittuan mordua. Enseiñanzen egon zittuan, Trintxerpekuak-eta ziela-eta. Akordatzeko nok, gure lagunak han jebitzian eskolan-eta, monjak-eta billurrez, paisana jantzizta eta holakuak. Oso erlijiosuak ez zittuan izengo, itxuria.
- Hori nazionalak etorri baiño lehentxuago?
- Aurretik. Donostia aldetik honutz refugiauak etortzen hasi zienien.
- Gerra aurretik be akordatzeko nok karlista mordo bat, mutil sasoikuak, guretik gora zela juaten zien han Aibarko txabolako sakonera, pistolak probatzera. Tip eta tap ibiltzen zittuan.
- Asko lehenago gerria baiño?
- Ba. Asko lehenago ez, baiña bai.
- Harek be zeoze...
- Bai. Gero detenidu ein jittuen danak. Itxuria [...] sasoiko kuadrillia zuan eta.

25. Eraso-egunetan ezkutatuta; kanoikadak sororaino

- **Erref:** BER-032/016
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:25:58. **Bukatu:** 00:26:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Eraso-egunetan ezkutatuta; kanoikadak soroan sartzen ziren.

Transkripzioa

- Eta atake egunetan eta, zela ikusten ziñuen, ezkutauta egoten ziñaten etxian?
- Bueno, ba sarritan billurrez ezkutauta be bai.
- Dinbirri-danbarra haundixa entzuten zan?
- Bai, abioiak eta.
- Kaiñonazuak eta?
- Bai, gure souan-eta sartu jittuen kaiñonazuak be. Etxe ingurura bertara ez jakuan tokau.
- Bistan zeuan frentetik? Garbe aldetik-eta bistan egongo zan.
- Bai, Garbe aldetik-eta bistan, hoixe.
- Eta Elgetatik?
- Ez. Elgeta aldia ikusteko harutzao joan bihar izeten zuan, zerera, Kalbaixo aldera-edo hara.
- Orduan obserbatorixua be han?
- Bai. Elgeta alderakua bai.

26. Gaez fronte batetik bestera berbetan eta bertsotan

- **Erref:** BER-032/017
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:26:56. **Bukatu:** 00:29:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gaez fronte batetik bestera mezuak bidaltzen zizkioten elkarri bozgorailutik. Bertsotan ere egiten zuten.

Transkripzioa

- Gabaz-eta esaten dabe frente batetik bestera...
- Altabozakin. Makiña bat bider egon giñuztan bentanatik entzuten, alkarri arengak altabozetik zertzen.
- Zelakuak?
- "Pasáos a nuestra filas, no os haremos nada", ez dakit zer, "Os vais a...". Behintzet bakoitzak beria ona. Eta gorantziak emuten bata bestiai parientienak-eta, gorantziak emuten eta be bai. Akordatzen naiz, Raizabalenian jeuan kriada bat Zoila izena dabena, eta: "Conoces a Zoila?", y "Sí!", "Pues es mi novia y dale recuerdos!", "Pues ahora ez mi novia!". Holakuak eta.
- Ze aldetan hori?
- Garbe aldetik Munabe aldera edo, San Juan aldera edo, horra.
- Garben gorrixak eta Munabe aldian nazionalak zeren?
- Bai, Munabe aldian nazionalak eta Garbe aldian zera... Munaben, San Juango Plazan. Gero, Atxabaletako etxostian, han Elgeta aldera. Gero, Amatiñoko etxazpixon. Gero, Narbaizagoikua baiño gorao.
- Eta bertsotan be eitten zebela entzunda nago.
- Bai, bai. Eundoko zerak eukitzen jittuen gabian. Eske hainbeste denporan...
- Zuk entzun ziñuan sekula bertsotan?
- Ba, ez nok ni akordatzen, baiña gauza asko esaten zebela gabian altabozetatik, bai.
- Eta alkarri ondo entzuten jako?
- Bai, primeran gabian. Makiña bat bidar etxosteko bentanara joan, eta han jarri, eta hotzak hartzen egon giñuztan entzuten.
- Gabaz?
- Bai, gabaz.
- Eta bestela billurrik-eta gabaz zeuek hara eta hona ibiltzeko?
- Ez, ibilli biharrik be ez giñuan eukitzen ezta gabaz.
- Etxe inguruan?
- Etxe inguruan.

27. Bertako neskekin ezkonduetako militarrek

- **Erref:** BER-032/018
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:29:20. **Bukatu:** 00:31:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Soldaduak suministroa lapurtzen; soldadua laztanak ematen; bertako neskekin ezkontutako militarrek.

Transkripzioa

- Soldauak pasatzen zittuan zerakin, suministrua. Egun birik bat jasotzen zebe hor "Artillería de Montaña" horrek, muluendako lastua eta jana personendakua, eta brigadia eruatzen zebe erekin zaintzeko, baiña beti... etxe aurretik eta etxostetik, bixetatik bidia guria leku batera joateko, eta brigadia etxostetik baldin bazoian, etxe aurrian lapurretan eitten jotsen, olixua edo okelia edo zera, eta etxostetik eruatzen bazan, zera... Bai. Bat bajeuan Riestra-edo, asturiano bat; harek parian harrapatzen zittuenei laztana emuten jotsen, itxuria.

- Neskei?

- Neskei, bai. Baten, hor kuartel aldian baten bati emun jotsan, eta Hondartzan be kriadia atera urten, eta hari be laztana emun eta aurrera!

- Eta bestela hola sustoik soldauak neskei-eta?

- Ez, ez jakuan tokau, bastante errespetoko jentia, errespeto haundiko jentia tokau jakuan.

- Geldittu zan iñor hemen ezkontuta-edo?

- Bai, bai. Munabeko Ixabel. Taberna Berrixan Pedro Joxen arrebia, Ixabel. Orduan einddako amistadiakin ezkondu zuan. Gaixorik be egon zuan, itxuria gizonen zerakin, baiña berana izengo zuan. Gero behintzet Naparruara berakin ezkondu zuan.

28. Alemanak Bergaran

- **Erref:** BER-032/019
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:31:30. **Bukatu:** 00:32:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Alemanak Bergarara etorri zireneko kontuak.

Transkripzioa

- Alemanak zer dala eta agertu zien?

- Ba nik uste dot gerrarako preparatzeko entrenatzera etorri ziela harek. Telekomunikaziño eta hontaiko zerekin uste dot jokatu zebela harek gehixao; frentian-eta hamen ez zien ibilli.

- Zuen etxian ez zien erretirauko?

- Ez, ez. Ez zien. Gero alemanak Frantzian gerria egon zanian etorri zittuan mordua handik ihesi.

- Gerra ostian?

- Bai, Frantziako gerrian zerian, aleman mordua Altos Hornosen be ibilli zuan. Bai.

- Eta urte askuan?

- Ez dakit zenbat denporan, baiña.

- Harek Frantzian gerria galdu zebeñian...
- Bai, honutz pasau eta hor lanian-eta ibili zittuan.
- Hortaiko jente asko ez zan geldittu, ezta?
- Ez, gero gehixenak joan zien. Nik uste dot baten bat ezkondu be ein zala alemanen batekin, baiña. Kalekua; ez jakixat.

29. Ihes egin nahi zuten bizkaitarren kontakizuna

- **Erref:** BER-032/021
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:33:33. **Bukatu:** 00:34:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Ihes egin nahi zuten bizkaitarren inguruko kontakizuna.

Transkripzioa

- Beste ihes egin nahi zebeñ bizkaitarrok zela akordatzen ditzuzu?
- Bat zuan hola haundi..., hola puxkat kaxkajo samarra ero zera, baiña bestia oso..., Mungiakua zuan; abade-estudiante egondakua eta oso mutil zera. Gero ama bisittatzen egon zuan gero be, gerria akabauta gero be.
- Orduan bizirik urten zeban?
- Bai. Eta, klaro, harek Gabonetan be ba permisua emuten jotsen, batzuei Gabonetan eta bestiei Gabon Berrittan etxera joateko. Harek Gabonak gurekin pasau jittuen, "Hauxe da gure ama" esanda. "Guriak be izango dittuk nunbaitten" gure amak eta.
- Dominika zan, ezta?
- Dominika, bai.

30. Gerran desagertutako Migel anaiaren istorioa

- **Erref:** BER-032/022
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:34:25. **Bukatu:** 00:37:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Gerran desagertu zen Migel anaiaren istorioa.

Transkripzioa

- Eta zer moduz konpontzen zan bera soldauekin? Zer moduz eruan zeban?
- Bueno, hainbestian, hainbestian. Gero etorri zuan anaian desagarezitzia; hauraxe gogorra izan zuan.
- Asturiasen edo?
- Ez, Asturiastik buelta dana ein eta. Hiru bidar-edo heriduta egonda jeuan. Baten kartutxeran sartu jakuan balia, beste baten hankak erre jittuan hor Teruelen, hotz haundi harekin, bota-ta guzti. Hankak erre. Etxian be egon zuan eta. Hiru bidar egon zala eta frentera juan biharrik ez zebala izengo,

esan jotsen. Bitorixan jeuan, Santiago egunian Maria izan zuan bisittatzen, eta satisfetxo mutilla, koronelan asistente-edo, eta gehixao ez zeukala frentera joan biharrik esan zotsela eta. Eta Ebruan emon juen hor kontraatake haundixa gorrixak, eta hartu eta Ebrora eruan zeбен. Eta lagunak alkarri seiñak emunda zeuken, ba zeoze pasatzen bajakon bestiak abixatzeko, eta holaxe kartia etorri jakun ba Migel Arregiren lagunak ziela eta haura joan zan lekuan iñor bizirik ezin zeikiela geratu. Muluakin sakon batetik zoiala eta haura joan zan lekuan ba, eta gero gorrixak abanzau ein zebela eta ezin izen zebela rekuperau gorputzik, baiña haura han hilgo zala. Eta haren zerakin, kartekin ba... A, gero ba zera, zertifikaua eskatu giñuan Aiuntamentuan aber ba zera; edo ez dakit aurretik eskatu bagiñuan be: "que Miguel Arregui está luchando en el frente del Ebro, en el Batallón C de las Navas" Afrikakua, eta zertifikau hoi etorri jakun. Eta, klaro, hil ta geroko zertifikaua zan haura, eta gero ez zeбен nahi izen rekonoizteik, eta ez zan sekula ofizial hil haura. Osea, sei pezeta ero etxakixat zenbat izeten zan, hiru ero, hilddakuen gurasuak kobratzen zebena, eta gure ama ez zuan sekula aillegau. Makiña bat zertifikau bialdu juan aiuntamentutik zerera, Afrikara, baiña kobratzen jotsen zera, seillua-ta ez dakit zer eta badakit zer, sekula kontestaziñoik ez zuan etorri.

31. Jatorduak; baserriko lanak gerra denboran

- **Erref:** BER-032/023
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:37:35. **Bukatu:** 00:39:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Jatorduak. Baserriko lanak gerra denboran.

Transkripzioa

- Eta danok jatordu bat eitten ziñuen?
- Ez. Aparte eitten juen.
- Mariak preparauta? Mariak preparatzen zeban?
- Bai, sarritan bai.
- Eta amak be ingo zeban, ezta?
- Bai, bai. Amak eta tiak eta danon artian. Joxepa Erguizarkua eta. Andra mordua genden.
- Eta aittak, Martiñek zer eitten zeban hago zarramarra hare artian?
- Ba harek erderaz berbaik ez behintzet, ez jakixan eta. Ganauak gobernau eta badakik, basarriko lana, asko egoten zuan orduan. Eta idixak jezian galantak Erguizarkuak, eta luarri sailla goldatu, nik ittulan eindda-ta.
- Sailla izango zan, frente aldera zeuana ez behintzat.
- Ez, ez. Han zelaiko hegittan.
- Zelaixa?
- Bai. Oin zelai dienak, baiña orduan baso zienak.
- Galantak.
- Sail haundixak. Orduan eta gero-ta. Baso zienak ba zelai ipiñi zien.
- Orduan nahikua trauma eukiko zeban lenguaiajin, ezta?
- Bai, bai. Sei urtekin aitta hil eta etxia erre ein jakuan. Komuniua ein zebanian, amai esan ei jotsen: noranahirako daukazu semia-ta.
- Idurixo erre zan?
- Bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com